

“Ametsetan ari denak
ez du inoiz uste
ametsa amets duenik
argiak itzaltzen dion arte.”

J.A. ARTZE

“ORTZIA LOREZ, LURRA IZARREZ”

Mont Blanc inguratuz



Mikel Arrizabalaga

BILALDI honek, Frantzia, Italia eta Suitza herrialdeetan zehar hedatzen den Europako mendebaldeko mendigune garaienaren isurialde guztiak bisitatu eta ezagutzeko aukera eskaintzen du. Munduko leku gutxitan aurkituko ditugu Mont Blanc-eko mendigunean dauden paraje eta paisaia ederrak. Kontrastez betetako lurralde honetan, gailur garaiak, haitz zorrotzak, amaigabeko glaziarrak, izotzeko ezproiak, ibai emaritsuak, baso trinkoak eta landaretza ugari eta ederra mendizalearen begi ninietan xertatzen dira uneoro postal perfektua osatuz.

Zortzi egunetan zehar, mendi magalak zeharkatzen dituzten xenda eta bailarak lotzen dituzten lepoak bilatu ditugu eta ondo balizatatuko bideetan barna, Savoia Garaia, Savoia, Aosta eta Valais eskualdeetako herri txiki eta lurrek osatzen duten ikuskizun paregabeaz gozatu dugu.

■ Grandes Jorasses 1

■ 1. etapa

Les Houches (1010 m) - Chalets de Miage (1559 m)

Luzera: 13,5 km

Denbora: 4 ordu 50'

Desnibela: 1307 m (igo) 756 m (jaitsi)

Gaua *La Montagne* aterpean igaro ondoren, *Chamonix*etik 5 kilometrora dagoen *Les Houches*era (1010 m) abiatu gara kotxez, *Mont Blanc*eko itzuliari hasiera emateko ohiko abiapuntura hain zuzen ere. Teleferikoaren ondoan dagoen aparkalekuan kotxea utzi, zortzi egunerako beharko dugun materiala bizkarreratu eta martxan jarri gara. Ibiltari askok *Bellevue*ra teleferikoz igotzen dira, baina guk itzuli osoa oinez egitea erabaki dugunez marka zurigorriek (TMB-GR 5) erakusten diguten bideari heldu eta maldan gora jarri gara. *Belleface*ko txaletak atzean utzi eta teleaulkiaren linea jarraituz *Voza* lepora (1653 m) iritsi gara. Bide nagusia *Montjoie* bailaran sartu eta *Bionnassay* herrira jaisten bada ere, guk erakargarriagoa den beste saihasbide bat aukeratu dugu. Horretarako, kremlera-trenaren paraleloan doan bidea hartu dugu eta *Bellevue*ko geltokira iristean (1801 m) topo egin dugu

Gôûter eta *Tête Rousse* aterpeetan gaua pasa eta gero *Mont Blanc*eko mendi tontorrera igo nahi duten makina bat mendizalerekin.

Zeruan hodeiak nagusitzen hasi dira eta urrutian trumoi hotsaren bat edo beste entzun dugu. Kapa jantzi ondoren, ondo balizatatuko xenda jarraitu dugu *Bionnassay* glaziarretik jaisten den ur korrante indartsua gainditzeko pasabidearen bila. Zubi esekia igarotzean (1590 m) Himalaian gaudela iruditu zaigu. Amets laburra! Malda gogortzen hasten denerako ibarbide eder batera igo gara. Mokadutxo bat egin eta zintzurra freskatu ostean, *Tricot* leporantz (2120 m) jo dugu. Gora heltzean, *Vorassary* mendiaren tontorrera igotzeko asmoa bertan behera utzi behar izan dugu, lainoa sartu da eta. Gutxi falta zaigu gaurko helmugara iristeko, bailararen hondoan ikusi baititugu *Miage*ko etxetxoak. Bidea sigi-sagan jaitsi eta laster inguratu gara gaua pasako dugun aterpera. Dutzatu eta bazkaltzen hasi garenerako eguzkiaren berotasuna sentitu dugu. *Bionnassay* orratza eta *Dômes de Miage*ko harresi bikaina parez pare.

Eguraldi ona aprobetxatuz, trasteak utzi eta *Miage*ko larreetara jo dugu izen bera duen glaziarretik urtutako urek sortzen dituzten



Tour del Mont Blanc

EN este artículo, Mikel Arrizabalaga nos detalla uno de los trek más emblemáticos de Europa. Dentro de los grandes recorridos de media montaña en los Alpes, el Tour del Mont Blanc recorre un itinerario que da la vuelta completa a la cumbre más elevada de Europa Occidental a través de 3 países: Francia, Italia y Suiza. Este recorrido está salpicado de refugios, albergues y cabañas de montaña que ofrecen todo lo necesario para que el montañero pueda caminar ligero. Esta ruta de media montaña es apta para todos aquellos que habitualmente disfrutan de los entornos naturales y tengan el hábito de realizar largas caminatas. En este recorrido de aproximadamente 160 kilómetros, se cruzan míticos collados, frondosos bosques y se disfruta de verdes paisajes tapizados por un sinfín de flores, todo ello rodeado por enormes glaciares y por las cumbres más señeras de la historia del montañismo alpino.



erreken bila. *Plan Glazier* aterpera doan xenda segitu dugu tarte batez eta berehala iritsi gara ur-jaiuzi txiki baten ondora. Balkoia egiten duen arroka batean eseri eta eguzkiak bustitzen duen bailara ederrari so geratu gataizkio denbora luzez. Paisaiarekin ederki gozatu dugu! Afaldu eta goiz ohera.

- **2. etapa**
- Chalets de Miage (1559 m) - Col de la Croix de Bonhomme aterpea (2433 m)**
- Luzera: 22 km**
- Denbora: 6 ordu 40'**
- Desnibela: 1483 m (igo) 603 m (jaiitsi)**

Gau trumoisua izan dugu eta gosaltzera altxatu garenerako egunak bere aurpegiak goibelena erakutsi digu, lainoa eta euria *Miageko* bailara ederraz jabetu dira. Eguraldiaren aurreikuspenak ez dira onak, baina bapo gosalduek ondoren trasteak prestatu, aterpeko lagunak agurtu eta martxan jarri gara. *Gorges de la Gruvaz* aldera doan pistatik ateratzen den xenda balizatuari heldu diogu eta sigi-sagan *Truc* lepora (1720 m) igotzen hasi gara.

Berehala iritsi gara izen bera duten etxolen ondora, horietako bat aterpea delarik. Bide-seinaleak jarraituz maldan behera jarri gara *Les Contamines* aldera. Euriak ez du atertzen eta luzea gertatu zaigu jaitisiera, ez baitugu inguruaz gozatzeko aukerarik izan. *Armançettera* doan bidea ezkerrean utzi, *La Frassera* iritsi eta txaleten artean jarraituz *Les Contamines* (1167 m) herrian sartu gara. Ez dugu atsedetik hartu eta aurrera jarraitu dugu. TMBren markak jarraituz errearen beste aldera pasa eta *Le Layra* heldu gara. Gorabeherarik gabeko bidea segituz *Notre Dame de la Gorge* santutegira iritsi gara (1210 m) eta bertan arropaz aldatzeko eta santutegia bisitatzeko asmoz atsedean txiki bat hartzea erabaki dugu.

Atsedeanen ostean, *Le Bon Nant* errearen eskuineko ertzetik igotzen hasi gara harlauza handiz osatutako galtzadan zehar. Pasabide hau *Rochassets* izenez ezagutzen den antzinako bide erromatarra da. Bideak gora egiten du, baina zorionez atertu egin du eta zeruan ostarre txiki batzuk ikusi ditugu. Gorago, errekek higatutako *La Têna* zubia igaro eta *Tré-la Tête* uharrarekin elkartu ondoren, aurrera segitu dugu. Aldapa txiki bat igo eta *Nant Borrant* (1460 m) aterpera iritsi gara. Hamaiketako egiteko ueña. Eguzkia nagusitzen hasi da. Krema eman, arropaz arindu eta aurrera egin dugu. *La Rollaz* basoaren paraleloan doan bide zabaletik *La Balme* (1706 m) aterpearen ondoan dagoen iturrira iritsi gara. Pista utzi eta xenda eroso bat jarraituz *Jovet* lautadara igo gara. Izen bera duten lakuetara doan bidea ezkerrean utzi eta maldala motz baina piko bati ekin diogu *Plan des Damesera* (2243 m) igotzeko. Lautada txiki batean tumulu bat aurkitu dugu eta elezaharrak dioenez, ekaitz izugarri baten ondorioz, leku honetan hil ziren dama ingeles baten eta haren neskaarearen arrastoak omen daude bertan gordeta. Tradizioa jarraituz, bertatik pasatzean harri bat utzi dugu.



■ *Miage* bailara

Argazki pare bat atera eta *Bonhomme* lepora (2329 m) igotzen hasi gara hasieran arroken artean eta tarte belartsua zapalduz ondoren. Lepotik begiratzuz *Montjoie* haran luzearen ikuspegi ederra, baita ere *Trè-la-Tête* mendia eta *Chapieux* haranarenak. Haize fina dabil eta denbora galdu gabe elurtegi txiki bat gurutzatu eta harkaitzen artean zabaltzen den bidea segituz la *Croix de Bonhomme* lepora (2483 m) iritsi gara. Izen hau duen benetako lepoa beherago baitago, aterpea pasa ondoren. Nonbait, Bigarren Munduko Gerra aurretik Michelin muga bat jarri nahi izan zuten mendi-lepo faltsu honetan eta halaxe geratu da gaur arte. Puntu honetan GR5 eta TMB bideak bereiztu egiten dira. Kilometro erdi bat eskas maldan behera eta *Col de la Croix du Bonhomme* (2433 m) aterpera iritsi gara. *Beaufortain* eta la *Tarentaise*ko gailurretako bista ederrak. Afari ona bertako arduradunen musikaz lagundurik.

■ **3. etapa**

Col de la Croix de Bonhomme aterpea (2433 m) -

Elisabetta Soldini aterpea (2195 m)

Luzera: 20 km

Denbora: 5 ordu 30'

Desnibela: 967 m (igo) 1142 m (jaitsi)

Gaurkoan ere ez dugu zorte onik, atzo bezala eguna goibel esnatu da. *Fours* lepotik doan ibilbidea osatzeko asmoa genuen, baina eguraldia ikusita TMBren bide nagusia jarraituz bete beharko dugu gaurko etapa. Gosaldu, trasteak prestatu, euritarako arropak jantzi eta berehala jarri gara maldan behera. *Les Chapieux* (1550 m) herrira jaisteko ia 900 metroko desnibela egin dugu. Atzean utzi ditugu *la Raja* eta *Plan Varrano* etxolak. Eguraldi grisa lagun, herria zeharkatu eta asfaltatutako bidetik *la Ville des Glaciers*a (1790 m) heldu gara. Puntu honetan elkartzten dira *Fours* lepotik datorren bidea eta TMBren bide ofiziala. *Glaciers* uharrak zeharkatu eta bide zabala jarraituz gora egin dugu. *Chalet des Mottets* (1870 m) aterpe ezagunera heldu aurretik *la Seigne* menditik datorren *Grand-Praz* erreka gainditu dugu egurrezko zubia igaroz. Traste guztiak aterpearen kanpo aldean utzi eta gaurko bazkaria egiteko mahaiaren bueltan jarri gara.

Atzo bezala gaur ere eguraldiak onera egin du eta *la Seigne* lepora (2516 m) igotzen hastearrekin batera zeruak ostarteak zabaltzen hasi dira. Igoera samurra gertatu zaigu eta konturatu orduko Frantzia eta Italia banatzen dituen mendi-lepoan gara. Mediterraneo eta Adriatiko uren isurialdeen banaleroa den leku

honetatik dauden bistak ikusgarriak dira. Oraindik hodeiek goi mendietako gailurrak estaltzen ditu eta soilik gertu ditugunak ikusi ahal izan ditugu, *Glaciers* eta *Trè de la Tête* mendien orratzak beste batzuen artean nagusituz. Hemendik aurrera balizaje italiarra aurkituko dugu, TMB hizkiak erronbo horiaren barruan eta gezi horiak. *Chavannes* lepora doan Goi Mailako GR-a utzi eta *Lée Blanche* bailara aldera jaisten hasi gara. Marmoten txistuek ongi etorria eman digute. *Les Pyramides Calcaïnes* ikusgarrien azpian dauden "Carabinieris"-en txabola baten aurrien ondotik pasa ondoren, lautada handi batera jaitsi gara. Pista zabala jarraituz lautadaren bukaerara heldu eta ezker aldean, metro batzuk gorago, *Estelettes* eta *Lée Blanche* glaziarren menpean dagoen *Elisabetta Soldini* (2195 m) aterpera igo gara. Motxilak logelan utzi, dutxa bero bat hartu eta jendez beterik dagoen jangelan eseri gara garagardo txarroa eskutan hartuta. Bapo afaldu ostean, lotara joateko ordua.

■ **4. etapa**

Elisabetta Soldini aterpea (2195 m) - Le Pré Bertone

aterpea (1970 m)

Luzera: 20 km

Denbora: 6 ordu 15'

Desnibela: 1169 m (igo) 1457 m (jaitsi)

Goiz altxatu gara eguraldi onaren esperoan, baina gezurra badirudi ere sekulako hotza egiten du. *Lée Blanche* glaziarretik datorren haize hotzak elurra ekarri digu. Sinestezina! Lasai gosaldu dugu eta tarteka leihotik zeruari begiratu bat eman diogu, baina ez da aldaketarik. Motxilak prestatu eta neguko jantziak jarri behar izan ditugu: zamarra, eskularruak, bufa... Aterpetik abiatu eta *Lac Combal* lautada aldera jaisten hasi gara harrizko pista zabala jarraituz. Lautadaren bukaeran, *Miage* glaziarren morrenaren azpian *Lac Combal* (1950 m) aterpera ondotik pasa eta *Doire* zubira heldu aurretik, bidea utzi eta TMBren seinaleak jarraituz beheko *Arp Vieilleko* (2073 m) etxoletara doana hartu dugu. Lehen zati honetan zazpi langile bidea konpontzen ikusi ditugu. Harrigarria benetan! Larreak zeharkatuz goiko *Arp Vieilleko* (2303 m) etxoletara iritsi gara. Igotzen jarraitu dugu eta *Favre* mendiaren iparreko erpina (2420 m) zeharkatu dugunean elurak bisita egin dugu. Mazizo aldera begiratu dugu, *Miage*, *Brouillard* eta *Freiney* glaziarrek ikusteko esperantzaz, baina lainoak dena estaltzen du.

Altura jaisten hasi eta eskuinera utzi dugu *Youla* lepora doan bidea. *Vény* bailararen gainetik doan xenda erosoak *Mont Blanc*

mazizoko orratzak eta glaziarrak islatzen diren *Chécroui* lakuaren ondora eraman gaitu, baina gaur bere uretan ez da irudirik islatzen. Maldan beheara altuera galtzen jarraitu dugu eta eski estazioko pisten ondotik pasa ostean, *Chécroui* lepora (1956 m) heldu gara, *Mont Chérifén* magalean dagoen *Maison Vieille* aterpera. Aurreko egunetan bezala, zeruan ostarte zabalak irekitzen hasi dira. Dagoeneko ohitu gara! Arropaz aldatu eta tabernan sartu gara zerbait jan eta edatera.

Eguraldi bikaina lagun *Courmayeur* aldera jaisten hasi gara eski pisten ondotik. Larre aldapatsuan zehar berehala iritsi gara *Plan Chécrouira* (1700 m) teleferikoa iristen den lekura hain zuzen ere. Puntu honetan jende askok oinez jaitsi beharrean teleferikoz jaistea erabakitzen du. Lehen zatia aspergari samarra bada ere, guk oinez egitea erabaki dugu. Laster pista utzi eta basoan murgildu gara. Bide bazterretan dauden marrubiak bilduz iritsi gara *Dolonne* (1205 m) herrira eta bere kale estuetatik *Doire Baltée* ibaia gaingiditzen duen zubira jaitsi gara *Courmayereko* (1220 m) kaleetan sartuz. Eguzkiak gogor jotzen du eta herriko plazan dauden bankuetan eserita atsedena hartzea erabaki dugu.

Etapa honetako azken zatiari ekin diogu segidan eta horretarako TMBren markak segituz bide asfaltatu batek *Villair* (1320 m) aldera eraman gaitu. *Sapin* bailarako pistatik segi, zubi bat pasa eta *Sapin* lepora doan bidea utzi ondoren, sigi-sagan igotzen hasi gara. Aldapa gogorra da eta dagoeneko nekea metatzen hasi zaigu. Erritmo motelean (motxilak asko pisatzen baitu) eta atsedeen hartu gabe, basotik atera eta *Mont Blanc*eko (*Monte Bianco*) gailurra lehen aldiz ikusi ahal izan dugu. Argazki pare bat atera eta aterpera igotzeko azken metroei ekin diegu. Eguraldi bikainak ongi etorria eman digu *Bertone* aterpera (1970 m) iristean. Lotarako lekua hartu, dutxatu eta garagardo fresko batekin zintzurra freskatu dugu kanpoan dagoen mahai batean *Monte Bianco* eta inguruko mendiek osatzen duten postal ederraz gozatzen dugun bitartean.

■ 5. etapa

Le Pré Bertone aterpea (1970 m) - Elena aterpea (2062 m)

Luzera: 20,5 km

Denbora: 6 ordu 25'

Desnibela: 1249 m (igo) 1157 m (jaitsi)

Goizeko bost eta erdietan ohetik altxatu, goizeko hotzari aurre egiteko zamarra jantzi, argazki kamara soinean hartu eta aterpearen gain aldean dagoen lautada txiki batera igo gara *Mont Blanc*eko gailurrean egunsentiaren argia islatzen ikusteko. Nolako ikuskizuna! Aurreko egunetan ez bezala, oskarbi dago eta pixkanaka argiak mazizoa osatzen duten mendi garaien magalak estaliz joan da. Ordu erdi luze eman dugu egunsentiari so, isilik, aurrez aurre dugun opariatz gozatuz. Egunak erabat argitu duenerako aterpeko jangelan gosaltzen gara. Gaurko egunak ez du hutsik egingo, eguraldi bikaina iragarrita baitago. Honek asko animatu gaitu.

Aterpeko lagunak agurtu, maldan gora jarri eta laster heldu gara orientazio-mahaia dagoen lekura (1991 m). Hemendik aurrera malda gogortu egiten da eta erritmoa moteldu behar izan dugu. Lehen izerditan kopetatik irristatzen hasi direnako *Mont de la Saxeren* bizkarreko belarra zapaltzen hasi gara eta bat batean gure begien aurrean postalezko paisaia zoragarria: *Mont Dolent* eta *Grandes Jorasses* mendiek osatzen duten gandor ikusgarria. Motxila lurrean laga eta begiratoki natural honetan denbora dezente igaro dugu aurrez aurre dugun ikuspegiatz gozatuz. Bide luzea geratzen zaigu oraindik eta martxan jarri gara berriz. *Grandes Jorasses*eko pareta bertikalak bistatik galdu gabe *Testa Bernardara* (2534 m) heldu gara. Bidezidorrak *Tête de la Tronche* (2584 m) saihesten du. *Sapin* lepora (2436 m) iristean bideak beherantz egiten du *Armina* arroaren goi aldeko larreetan zehar. Izen bera duen uharra

■ *Aiguille de Peterey*

zeharkatu eta *Alpe de Séchéron*eko (2260 m) txabolen aurrera ondora iritsi gara. Erosoago gerta zegigukeen haranaren beheko aldera jaistea, baina nahiago izan dugu TMBren bariantea hartu eta *Pas Entre Deux Sauts* (2525 m) lepora igotzea. Xendaren alboetara lorategi aparta osatzen duten makina bat lorek gure ibilaldia edertzen dute. Begiak ezin ase aurrera jarraitu dugu *Malatrà* haranetik beherantz. Aurrez aurre dugun *Grandes Jorasses*eko *Walker Puntaren* piramide perfektuaren ikuspegi bikaina galdu gabe *Bonatti* aterpera (2025 m) iritsi gara.

Ingurua turistaz beterik dago eta berehala jarri gara martxan. Ez da komeni *La Vacheyra* jaistea, *Arnudara* doan bide zatia asfaltatuta baitago. Beraz, etorritako bidetik atzera egin dugu tarte batez eta TMBren balizajea jarraituz *Malatrà* uharra zeharkatu eta ondo taxaturiko bidea jarraitu dugu. Lore eta landare ugari ingururik erraz bete dugu *Arnudaraino* (1770 m) doan bide zatia. Inguru honetan makina bat kotxe eta autobus turistaz beterik egon ohi da eta horietatik ihesi aterpera doan xenda bilatu dugu. *Belle Combe* uharra igaro ondoren aldapa pikoari aurre egin diogu *Sagioaneko* txaboletako aurrrietara iristeko. Azken ahalegina eta *Elena* aterpera (2062 m) heldu gara. Kanpoan dagoen bankuan eseri eta *Triolet Orratza* eta *Mont Dolenten* artean dagoen *Pré de Bar* glaziari aldera begira jarri gara esku artean zerbeza hotz bat dastatzen dugun bitartean. Glaziarraren goi aldean bi helikoptero erreskate lanetan ikusi ditugu. Ohi bezala, dutxatu ondoren, afari ona eta lotara. Sekulako eguna izan dugu, aparta benetan.

■ 6. etapa

Elena aterpea (2062 m) - Relais d'Arpette aterpea (1627 m)

Luzera: 26,5 km

Denbora: 7 ordu 40'

Desnibela: 1047 m (igo) 1482 m (jaitsi)

Egunsentiaren argiak esnatu ondoren, gosaldia eta gaurko etapa luzeari aurre egiteko garaiz abiatu gara. Atzo bezala gaur ere eguraldi bikaina izango dugu. Suitzako *Ferret* haranera iristeko TMBren bide ofiziala jarraitu dugu. *Grand Ferret* leporean (2537 m) magal berdeek zeharkatzen duen bide erosotik erraz gaingitu ditugu aterpetik leporaino dauden kasik 500 metroko desnibela. Italiako *Aosta* harana eta Suitzako *Valais* kantoien artean antzinatik erabili ohi den pasagune honetatik ikusten diren bistak paregabeak dira. Atzera begiratu eta agur esan diogu *la Seigne* leporean hedatzen den Italiako *Ferret* haran ikusgarri bezain ederrari. Gure ezkerrean Frantzia, Italia eta Suitza arteko muga kokatzen den *Mont Dolent*eko gailurra. Hemendik aurrera balizaje suitzarra aurkituko dugu, marka zuri-gorri-zuriak edota erronbo horiak.

Italia utzi eta Suitzako mendi garaia aurrez aurre ditugularik, *La Chaudière*eko larreen barna jaisten hasi gara haranaren hondora. *Peulako* etxoletara iristean pista zabal bati heldu diogu *Dranse de Ferret* (1775 m) erreka zeharkatzeko zubia igaroz. Errepidetik jarraitu beharrean (jende askok aukera hau egiten baitu), *Ars-Dessous* etxolen ondotik ateratzen den bidea jarraitu dugu *Ferret* (1705 m) herrira heltzeko. Errepidetik jarraituz *La Fouly* (1610 m) herrira jaitsi daiteke, baina hau ere saihestu nahi izan dugu, horretarako ibaiaren ondora jaitsi eta honen ezker aldeko ertzetik doan bidea segitu dugu, *I'A Neuveko* glaziarraren



■ Aiguille de Tré la Tête eta Elisabetta Soldini aterpea

magalean dauden Suitzako egurrezko etxe tipikoen artean. Herrian dagoen dendan janaria eta edaria erosi eta kanpinaren ondoan dagoen pinudian bazkaltzen jarri gara. Bide luzea geratzen zaigu oraindik eta eguraldi ederra aprobetxatuz atseden luzea egin dugu.

Baso eta larreetan zehar eta glaziarretatik datozen uhar ugariak igaroz *Praz de Fort* (1151 m) herrira iritsi gara. Puntu honetan berriro *Dranse de Ferret* ibaiaren beste aldera pasa eta *les Arlaches* herri tipikoaren erditik igaro eta gero, *Issertera* (1055 m) heldu gara. Herritik irten eta berehala ezker aldetik ateratzen den balizatutako bidea hartu dugu. TMBa basoan sartu eta bide erosoan jarraitu dugu *Le Champex* lakura (1480 m) iristeko. Polita bai, baina inguru turistiko batek dituen osagai guztiak aurkitu ditugu hemen: hotelak, txaletak, jatetxeak, dendak... beraz, inguru naturalago baten bila aurrera segitzea erabaki dugu. Lakua atzean utzi eta *la Breyako* (1500 m) teleaulkiaren estaziorantz jo dugu. Puntu honetan bidegurutzetara batekin egin dugu topo, TMB ofizialak *la Forclaz* lepora egiten du, guk, berriz, *Arpetteko* haranaren bariantea aukeratu dugu. Ura indarrez jaisten den erreka baten ondotik altuera irabazi eta erraz iritsi gara *Relais d'Arpette* aterpera (1630 m). Bi laguntzako logelak, lababoa, toaja, jaboia... aterpea baino hotela dirudi. Arropa zikinak garbitu, dutxa beroa hartu eta afaltzera. Eta Goiok ekarritako Cardenal Mendozaarekin bukaera ezin hobea eman diogu egun eder honi.

■ 7. etapa

Relais d'Arpette aterpea (1627 m) - Col de la Balme aterpea (2191 m)

Luzera: 15,5 km

Denbora: 7 ordu 15'

Desnibela: 1865 m (igo) 1192 m (jaitsi)

Oso goiz altxatu gara eta gosalduta ondoren martxan jarri gara. Gaurko etapa luzea ez, baina desnibel handikoa da. *Arpetteko* bailaran murgildu gara hasieran pista zabala segituz eta ondoren, harri eta zuhaixken artean irekitzen den xenda balizatua bilatu dugu. *La Barne* (2100 m) lautadara iristean, ezkerretik *Ecandies* lepora (2796 m) doan bidea utzi eta eskuinetik ateratzen denari

heldu diogu. Gure ezkerrera *Orny* orratza eta goian *Arpetteko* lepota ageri dira. Aldapan gora arroken labirinto batera iritsi gara. Tarte nekagarri hau gaingitu, belar eta legarrezko azken malda pikoari ekin eta *Arpetteko* lepora (2665 m) ailegatu gara, *Mont Blanceko* itzuliko lekuri altuenera. Hotza egiten du eta indarrak berreskuratzen ditugun bitartean zamarra jantzi eta arrokaren babesa bilatu dugu.

Trienteko isurialdera jaisten hasi gara. Aldapa pikoa da eta lehen zatian kontuz ibili behar izan dugu. Gure ezkerrera geratzen den *Trienteko* glaziar ikusgarriaren paraleloan xenda jarraituz erraz galdu dugu altuera. Bidearen zenbait tartetan egurrezko mailak jarri dituzte higadurak hondatu ez dezan. Jaitsiera luze eta eder honek *Chalet du Glacierera* (1583 m) eraman gaitu. Hamaiketako egiteko ordua.

Aurrera jarraituz gero *la Forclaz* lepota iritsiko ginateke, baina guk beste alternatiba bat aukeratu dugu *La Balme* iristeko. Erreka gaingitzen lagundu digun zubia igaro eta ondo taxututako xenda segituz sigi-sagan gorantz egin dugu berriro, *Trienteko* glaziarraren ikuspegi bikainaz gozatzen dugun bitartean. Pasa errazteko porlanaz eta kablez egokitu duten igarobidetik *Les Grands Dessus* aterpera (2113 m) igo gara. Aterpe txikia baina leku paregabea. *Midi* punta inguratzen duen xendatik aurrera egin dugu *Trient* bailara *Forclaz* lepota gure menpean ikusi ditugularik. Eguraldiak okerrera egin du, zerua guztiz estali da eta lehen euri tantak gainean ditugu. Goran, lepota *La Balme* aterpearen (2191 m) silueta ikusi dugu une batez, baina lainoa geroz eta trinkoagoa da eta haizea gogor jotzen hasi da. Bidezidor nabarmena jarraituz pausoa azkartu egin dugu Frantzia eta Suitza arteko mugan dagoen aterpera ailegatzeko. Toki honetatik dauden bistak sekulakoak omen dira, baina guk ez dugu zortetik izan, lainoak den dena estaltzen baitu. Orain arte ezagutu ditugun aterpe guztiak oso onak izan badira ere, ezin gauza bera esan *La Balme* aterpearengatik. Zerbitzu eskasak ditu (dutzatzeko ur berorik ez, edateko ura erosi egin behar, logelak oso zaharrak...). Beraz, indarrak soberan edukiz gero, hobe beheago dauden *Chalets de Charamillonera* (1915 m) edo *Le Tour* herrira (1460) jaitsi eta gaua pasatzeko lekua hartzea. Guk aurretik lekua hartuta eta dirua aurrerratuta genuenez gaua bertan pasatzea erabaki dugu.

■ 8. etapa

Col de la Balme aterpea (2191 m) - Les Houches (1010 m)

Luzera: 27 km

Denbora: 9 ordu

Desnibela: 1171 m (igo) 2354 m (jaitsi)

Gaur eguraldia goibel esnatu zaigu, atzo gaueko lainoa ez da kendu eta zirimiria egiten du. *Posettes* lepotik jaitsi beharrean, *Chalet de Charamillon* gure ezkerrean utzi eta zuzenean *Tours* herrira (1460 m) jaistea erabaki dugu. Atertu du. Errepidetik *Montroc* herrira (1350 m) joan gara eta hemen TMBren markak bilatuz basoa zeharkatzen duen xendatik *Tré le Champera* (1417 m) heldu gara. Lehen asmoa *Lac Blanc*eraino igo eta bertan gaua pasatzea zen, baina eguraldia ikusita gaurko etapa eta hurrengoa, biak batera egin, *Les Houches*eraino joan eta itzuli osoa amaitzea erabaki dugu.

Goian oraindik lainoa dagoenez, errepidetik behera egin, hau gurutzatu eta TMBren bide nagusiaren azpitik doan beste xenda bat hartu dugu. Bidea ederra eta eroso da. Basoan murgilduta mirtilla eta marrubien landareak nonahi ikusi ditugu, baina helmugara iristeko asko falta zaigu eta ez dugu denborarik fruitu horiek biltzen hasteko. Bailarako herrietara eta *Lac Blanc*era doazen bideak alboetara utzi eta *La Flégèrera* (1877 m) doana jarraitu dugu, azken aldapa gogorari eutsiz. *Mont Blanc*eko mazioren ikuspegi bikaina duen bertako jatetxean bazkaldu dugu. Eguraldiak hobera egin du eta tarteka mendien gailurrak hodeien artean ageri dira.

Teleferiko estazioa utzi eta TMB bide nagusiaren seinaleek erakusten diguten norabidea jarraituz *Grand Balcon Sud* bidetik aurrera egin dugu. Bailarara jaisten diren bideak edota *Noirs* eta *Cornu* lakuetara doazenak albora utzi eta bide nagusitik *Plan Prazeko* estaziara heldu gara. Ostearke geroz eta zabalagoak dira *Aiguilles Rouges* mazioren mendien orratzak ikusteko parada izan dugularik. Eguraldiak hobera egin du. *Brévent* lepora (2370 m) igotzen hasi gara aurrez aurre *Mont Blanc* eta inguruko mendien gailurrek laino artean agertuz osatzen duten postal ederraz gozatuz. Lepoan TMB eta GR 5a elkartzten dira. Harkaitz artean eta ferrata batzuek lagundurik eski pisten goi aldera igo gara eta bertatik aurrera segituz *Le Brévent* gailurrean (2526 m) dagoen orientazio mahaiaren ondoan jarri gara. Bista izugarriak ditu. Oso leku turistikoa baita, bertaraino teleferiko igo baitaiteke.

Martxan jarri eta *Brévent* lakua behean utzita bide-seinaleak galdu gabe aurrera egin dugu. Sekulako bistak dituen balkoi honetatik *Bel Lachat* aterpera (2151 m) jaitsi gara. Bertako terrazatik *Mont Blanc* mazizoko gailur garaia, haitz zorrotzak, amaigabeko glaziarrek eta izotzezko ezproiak ikusteko aukera ezin hobea izan dugu. Ikuspegiak gozatu ostean, maldan behera jarri gara. Aldapa pikoak da eta zati batzuetan egurrezko mailak jarri dituzte bidea ez desitxuratzeko. Basoan murgildu eta *Merleteko* animalien parkearen

(1600 m) hesiaren ondora iritsi gara. Ordu asko daramagu ibiltzen eta dagoeneko nekea metatzen hasi zaigu. Animalien parkearen ondotik ateratzen den xendatik behera egin dugu *Les Houches* herrira (1010 m) iristeko. Arve ibaia eta herria zeharkatu, *Bellevue*ko teleferikoaren aparkalekura iritsi eta bukatu dugu. Bikaina! Merezki izan du. □

Bibliografia

Tour del Mont Blanc. Cándido Muñoz. Desnivel, 2004.
Cuadernos alpinos. Mont Blanc. Miguel Angulo-Luis Alejos. Sua Edizioak, 2008.
Tour du Mont Blanc: France/ Italie/ Suisse. FRRP, 2000.
Tour of Mont Blanc. Kev Reynolds. Cicerone, 2007.
El tour del Mont Blanc. Fernando Rodríguez Arrieta. Pyrenaica 192, 1998.
Mont Blanc-eko itzulia. Alito Gracia. Gure artean. Urdaburu Mendizale Elkarte, 2007.

Kartografia

Chamonix. Massif du Mont Blanc. 1:25.000. Cartographie IGN. 3630 OT.
St-Gervais-Les Bains. Massif du Mont Blanc. 1:25.000. Cartographie IGN 3531 ET.
Cuadernos alpinos. Mont Blanc. Miguel Angulo-Luis Alejos. Sua Edizioak.
Monte Bianco/Mont Blanc. 1:50.000. Kompass.

Web guneak

Herriak eta bailarak

<http://www.chamonix.com>
<http://www.chamonix-montblanc.fr>
<http://www.leshouches.com/fr>
<http://www.lescontamines.com>
<http://www.comune.courmayeur.ao.it>
<http://www.aiat-monte-bianco.com>
<http://www.champex.info>
<http://www.haute-savoie.info>
<http://www.vallo.blogspot.com/>

aterpeak

<http://www.leshouches.com/fr/TMB2008-refuges.pdf>
<http://www.cdrp74.fr/gr/heberg-tmb.html>
<http://www.refuges.info>
<http://www.gites-refuges.com>
<http://www.montagnes.com/alpinisme/refuge.asp>

meteo

<http://meteo.chamonix.com/>
<http://www.regione.vda.it>
<http://www.meteosuisse.admin.ch>

beste

<http://www.ohm-chamonix.com>
<http://montagnes.com/topoguid/r028.asp>

Mendizaleak

Antolatzailea: **Mendiak eta Herriak** bidaia agentzia
Mendizaleak: Joan Mari Torrealda, Goio Jaka eta Mikel Arrizabalaga



■ Monte Bianco



ARGAZKIA: MIKEL ARRIZABALAGA